



EGUESIBARKO HAUR ESKOLAK



**AYUNTAMIENTO
VALLE DE EGÜÉS
EGUESIBARKO
UDALA**



Ayto. del Valle de Egüés
Eguesibarko Udala, Garajonay 1
31621 • Sarriguren

www.valledeegues.com





ILDO PEDAGOGIKOA

- **Haurra behatetik eta entzutetik abiatuta, bidelagun izatean datza guretzat hezkuntza.** Haurrek bizi dituzten prozesu emozional, motor eta kognitiboek aurrea hartu gabe, eta aldi berean, besteekin bizitzean sortzen diren frustrazio eta mugak, maitasunezko eskuhartze eta presentzia eskeiniz.
- **Haurra jaiotzetik gaitasunez beteriko subjektutzat dugu,** etengabeko baliabideak aurkitzeko trebetasunez jantzia. Bere ikasketen eta aurkikuntzen bidelagun bihurtzen gara, gure ideiak inposatzeari uko egiten, haien denborak eta erritmoak errespetatuz, aurreratu gabe, mundua ulertu eta jarduteko era ezberdinak daudela onartuz, presarik gabe, estimulazio zuzenik gabe eta aurrea hartu gabe, norberaren aurkikuntzen magia lapurtzeko arriskua sahiestuz.
- **Iniziatiba pertsonaletik abiatzen den jolasaren balioa.** Haurren jolasa zaintzea, objektu, proposamen eta espazio egokiak eskeintzea da. Halaber, ezer ez diren eta aldi berean dena izan daitezkeen egituratu gabeko materialen alde egitea da. Tailerren eta talde txikien lanaren bidez, sentsibiltate estetikoaren, sormenaren eta ikerketa-jarreraren garapenean jartzen dugu arreta.
- **Eskolako lehen egunetan familiekin egiten den harremanaren balioa.** Elkarren arteko segurtasunean eta konfiantzan oinarritutako lehen loturak eraikitzeko denbora da harrera. Hezkuntza-prozesuan parte hartzen duten pertsona guztien arteko elkarrizketa konstruktiboa elkarrizketen, txostenen, bileren, eskolako bisiten, tailerren eta eguneroko harremanetan sortzen den berezko solasaldiaren bidez gauzatzen da. talleres y la charla espontanea que surge en el contacto día a día



JOLASA

*Haurrek beren kabuz jolas librean egiten dituzten ikasketak ezin dira bestela ikasi
(Peter Gray)*

ESPLORAZIO ETA AURKIKUNTZA-JOLOSAK Altxorren saskia/Jolas heuristikoa/Ikerketa-tailerrak

Objetuekin sortzen dituzten harremanak, hau da, esplorazioa, ikerketa, manipulazio eta akzionatzearen bitartez, jarrera eta gaitasun motorrak, kognitiboak eta erlazionalak zabaltzeko aukerak aurkitzen dituzte. Material ezberdinekin sortzen dituzten interakzioek, inguruneaz jabetzen laguntzen dituzte, horrela, ikaskuntza-sare propioa eraikitzen.

Jarduera horien diseinuari esker, objektuen ikerketa autonomoa, materialen aurkikuntza eta haien arteko harreman anitzak egin ditzakete. Bere interes, desio eta beharretatik abiatuta, esplorazioa libre da, bat-batekoa, honek ez dio akatsari lekuri uzten.



JOLAS SINBOLIKOA

Jolas sinbolikoaren bitartez haien bizipenak proiektatzen dituzte, fikziozko egoerak sortzen, pertsonaiak bihurtzen, irudimenezko munduak sortzen, objektuei bizia ematen, hala nola bel-durrei, zalantzei, desioei eta tentsioei aurre egiten diete, oreka emozionala bideratuz eta poliki konfiantza eta segurtasuna irabaziz dihoaz.

ADIERAZPEN TAILERRAK

Esploraziorako aukerak ematen dituzten euste eta epaiketarik gabeko espazioak sortuz, eta jolasaren bitartez, lehen trazuak, koloreak eta buztina ezagutzeko aukera dute, beti ere era libre eta autonomoan. Jarduera honek haurren adierazpen behar sakonenak asetzen ditu.

Materialen antolaketa finko eta ordenatuak askatasuna ematen du, sorkuntza eta garapen pertsonala ahalbidetzen ditu.



PSIKOMOTRIZITATE ERLAZIONALA

Afektibitatearen, gizakien arteko harremanen, subjektibitatearen eta prozesu kognitiboen oinarria, motrizitatea da. Psikomotrizitate erlazionala adierazpen globala ahalbidetzen duen teknika bat da, norberak munduan era konzientearen kokatzen laguntzen duena, gorputza mugimenduan abiapuntutzat hartuta.

Mugimenduak sortzen duen plazeretik, autonomia pertsonala garatzen laguntzen duen alderdi emozionalak eta afektiboak lantzen dira.



LAKARRI HAUR ESKOLA

TALDEKATZEA

- DITIKOAK
- IBILTARIAK
- 1-3 urteko
TALDEKATZEA

HIZKUNTZ EREDUA

Gaztelania ingeleraren
hastapenarekin

JARDUNALDI

Jardunaldi osoa

ORDUTEGIA

Sarrera: 7:30 - 9:30
Irteera: 14:30 - 16:00
* Gehienezko egonaldia
eskolan 7 ordu.

KOKAPENA ETA KONTAKTUA

Urbicain Kalea Z/G
(Gorraitz)
TFNOA: 948 357472

TANGORRI HAUR ESKOLA

TALDEKATZEA

- DITIKOAK
- IBILTARIAK
- 1-3 urteko
TALDEKATZEA

HIZKUNTZ EREDUA

Gaztelania ingeleraren
hastapenarekin

JARDUNALDI

Jardunaldi osoa

ORDUTEGIA

Sarrera: 7:30 - 9:30
Irteera: 14:30 - 16:00
* Gehienezko egonaldia
eskolan 7 ordu.

KOKAPENA ETA KONTAKTUA

Garajonay Kalea 6
(Sarriguren)
TFNOA: 948 806789

MALKAITZ HAUR ESKOLA

TALDEKATZEA

- DITIKOAK
- IBILTARIAK
- 1-3 urteko
TALDEKATZEA

HIZKUNTZ EREDUA

Euskera

JARDUNALDI

Jardunaldi osoa

ORDUTEGIA

Sarrera: 7:30 - 9:30
Irteera: 14:30 - 16:00
* Gehienezko egonaldia
eskolan 7 ordu.

KOKAPENA ETA KONTAKTUA

Ibia Kalea 64 (Sarriguren)
TFNOA: 948 156865



AYUNTAMIENTO
VALLE DE EGÜÉS
EGUESIBARKO
UDALA



Ayto. del Valle de Egüés
Eguesibarko Udala, Garajonay 1
31621 • Sarriguren

www.valledeegues.com

